EUZKEL-ATALA

"EUSKALTZALEAK"

Deiak

OLERKI-BATZALDIA

Errenderi'n, garagarrilla'ren leenean, [illegible] dan Euskel-Olerti-Jaierako OLERKI-BATZALDI bat jartzera erabaki da. Euskel-olerkari guzi-guzi, edozein euskelgidunak zeratela, [illegible] dagizutegu, jai eder aiek aalik bete [illegible] osatuenak ditezen.

Batzaldi orretara azalduko dan olerkik bikañenari zillarrezko ARITZ-BARTXOA emango zaio. Gañera [illegible]en ori ta orren urrengo aukeratzenak "Onbide"-antzokian nabaroki [illegible]-araziko dira.

Olerkiok euskeraz bear dute ta arbura gabeak. Gaia, neurkera, luzea [illegible] abar, nork-bere gogarako.

Orrilla 15'gnaren, eguerdirako artu [illegible]rrak ditugu. Zuzenbide: Comisión [illegible] Poesía Vasca. Oficinas de "Estudios Vascos". Palacio de la Diputación. [illegible] Sebastián.

Oi bezela, lanak betoz izenik gabe, [illegible]rritz edo "lema" bat ezaugarritzat [illegible]la. Izena estalki itxi batean betor, [illegible] bekar estalkiak azalean lanaren [illegible]ugarritza bera.

Epai-maia jaun auetxek osatzen du-[illegible] Yauregi'tar Koldobika, Ariztimu-[illegible]tar Joseba ta Labaien'dar Antoni. [illegible], bada, olerkariok, edozein euskelgi-[illegible] zeratela: udaberria bete-betean [illegible]-ta, ekin lanean gogor.

BERTSOLARI-BATZA

Euskal-Erria'ko bertsolari guziek [illegible]degi batean bildu nai genituzke. Batez ere gazteak, zaleak, oso eza-[illegible] ta ikas eiztiranak, zuzperrarazi [illegible] genituke, ta, beren buruak ezagu-[illegible] emateko ta neurtitz-gintzan [illegible]du aal-ditezen, gure jaietan aba-[illegible] egokiak emango genizkieke, [illegible]renderi'ko EUSKEL-OLERTI-JAI [illegible] asita.

Gozioi, bada, bertsolari zaarrei naiz [illegible]ei, ezagunei naiz ez-ezagunei, dei [illegible] "Euskaltzaleak" egiten dizutegu: [illegible]en, leenbait-leen zuen izen-abizenak [illegible]-apellidoak) eta billabide zeatz [illegible] ditzazute, zuzenbide ontaz: *Secretariado de Euskaltzaleak. Oficina de Estudios Vascos. Palacio Diputación. San Sebastián.*

Bider-nabar, errietako gure lagunei, [illegible]kel-idazleei batez ere, otoi dagiote-[illegible]berak ezagutzen dituten bertsolari [illegible] bertsolari-gai guzien zer-nolak [illegible] dezazkiguten.

OLERKI-ESATE BATZALDIA

Errenderi'ko EUSKEL-OLERTI-[illegible]'erako, olerki-batzaldiaz gañera, [illegible]e norgeiagoka bat asmatu degu. [illegible]tiko ta nexkaen olerki-esate edo [illegible]lamatzea. Berta Singermann-gai [illegible]tuk billa nai, alegia...

[illegible]tiko ta nexkaek bi salletan be-[illegible]ko dira, orretarako: bederatzi ur-[illegible]k beerakoak eta adin ortatik ama-[illegible] urte bitartekoak. Sail bakoitza [illegible]at zortzi-amar-bat ogerleko izan-[illegible] dira, bi sariotanedo emateko.

Oguzi edo esanbearreko olerki ori [illegible]ribere aukerakoa bedi, argitaratua [illegible] argitaratu-gabea edozein egi-[illegible]ema. Luzea ezpa-da, obe. Buruz [illegible] ikasi bezate ta tajuz oguzteko [illegible]di.

[illegible]riketa ontan sartu nai dutenak [illegible]illa ren (maiatzaren) 20'gna. baño [illegible]ago, gorago esandako zuzenbideaz [illegible]en izen-abizenak eta billabidea adi-[illegible] bear dute, ta gañear aukera duten [illegible]kiaren eta beronen egillearen ize-[illegible].

Olerki-esate edo deklamatze ori "Onbide"-antzokian izango da, eguer-[illegible]rtean egingo dan jai-batzar edo [illegible]lada"-n.

"EUSKELTZALEAK".

ZARAUTZ

[illegible]arrietara datorkidanez, askoek uste [illegible]dute Andonitar-Gaztedia'rekiko aur-[illegible] eztabaidan "arnasean" igeri-egiña [illegible]a, ta, ezizen batez ezezik, biez, txa-[illegible]ok esana.

[illegible] Doneak gorde dezaiela begiaren [illegible]tza erritar kutun oie[illegible]. [illegible]a, bidezko daan otoitza orren on-[illegible], auxe esan bearrik nago: igaz-ezke-[illegible] ezaguna dala nere iritzia; ta berri-[illegible]zer esan nai izan ba'nu, ezizen eza-[illegible], ordun bezela, ta ez nere burua es-[illegible]az, esate'aal-nula; ta, azkenik, eztaz-[illegible] orretan, luma ezezik, eztedala an-[illegible] ez beatzik, ez ukalondorik sartu, [illegible] ere iñori zirikarik txikiena egin, [illegible] edozein irakurlek *aña*, ta beste edo-[illegible] irakurlek *ala*—ez leenago, ta ez beste [illegible] ere—jakin ditudalako eraso orren [illegible]derak.

[illegible]k makillez jotakorik iñork eztezake [illegible] aurrez-aurre ekin eztiodanik. Ge-[illegible] ere ala izatea nai nuke.

LIZARDI.

BERMEO

[illegible]NIKOA ETA ENTZUNIKOA

[illegible]ngas'eko baso-auzuan yusturiya yau-[illegible] lengo egun baten. Erre dau otadun [illegible]alla andiya.

[illegible] da yazo notiñ ezbiarrik.

✤ ✤ ✤

[illegible]rtu onetako untzi txikitxuak (itxas-[illegible]illak) besigua polito atrapaten dabe [illegible]tiko egunetan. Bai ta kordeleko le-[illegible] be. Onen saneurriya bost laurle-[illegible] dabill, gitxi gora-bera, aneikiko. [illegible]arena, besiguena, laurleko bi anei-[illegible].

[illegible]arraitu arriñ asko erriratuten.

✤ ✤ ✤

[illegible]akuetan erriko txistulariyak edergaz[illegible] yo dabe euskaldun soñu batzuk [illegible] Goiri zelaiyan. Entzuliak oso txa-[illegible] dabie aiñ eresi alai-politak.

"Urkidi" lagun maitea! Zeure arrain-[illegible] zeregiñakaz onetan egunetan ez [illegible]ru astirik zeozerlango lerro bi idaz-[illegible]. Bai dakit nik, asko ez ba dozue ire-[illegible]n be (arriñ gitxiya gaitik eta bera [illegible]a dalako) itxas-lana, arazua, lo-[illegible]a naikoa dabilzuena.

[illegible]k onek lerroak, zeuok porturatu do-[illegible] arraiña aztandu c'odan sasoian egi-[illegible] dira. ¿Gomutaten zera noiz? Pasko [illegible]eko illunabarra bera. Eta aldi [illegible]an tuntunaren eta txistu zoliyaren [illegible] garbi-gozoa alperrik galtzen-gure-[illegible] alperril galtzean — erestokiyan [illegible].

✤ ✤ ✤

Eguenian yuan dira Bilbo'ra naiko lemazaiñ, lurruntzitxuetako lemazañak. Erri andi orretan batun dira beste itxas-erriyetako arraintzale lemazañakaz. Au batzarra astean beiñ egiten dabe eurak arraintzuan egiñiko lagundiyak kitututeko.

✤ ✤ ✤

Asteartean euki dau batzar nagosiya Udaletxiak. Ainbat gauza, garrantzi andidunak, erabaki dabe batzar orretan erri-ziñegotziyak. Ara bat: Arana Goiri zelaiko erestokiya konponduteko eta toki orretan aurrerantzian erriko eresbatzak yo daiyela eresiyak sei illebetian eta Laneran beste sei illebetian.

Ara beste bat: Len Erriberan egiten izan dan abere-azoka oraiñik aurrera egiteko Portalian, "Taraska"-ren ondoan.

Ikusten danetik lengo bideetara goaz. ¿Baña noiz erabakiko da Erriberari beren lengo izena emotia, antxiñarik berena du-ta, eta kendu oraiñ daukon izena? Ez du biar-izen egokiyak izan ezik besterik. Oraiñ adukona ez da egokiya, polita bez, atsegingarriya bez. ¿Zer gaitik, zer egin dabela-ta kale bateri azago bizi dan gizon baten izena emon?

✤ ✤ ✤

"Goiko azokak" danak daroaz bertara tiratute lez. "Beko azokan" ikusten dot, lantzian kitu bat eginda, "Trifon" bakarrik.

✤ ✤ ✤

Goizeko Izarra'ko ostikolariyak Paskoigandean yuan dira emetik Mungia'ra erri onetako beste ostikolari aldra betegaz yokatuten. Etorri dira atzera, baña kolkuan ekarri dauskue bermeotarrak iru "goal". Besteak geratu dira bategaz. Guretarrak ondo yokatu dabe, baña galdu be bai yokua. Urrengotan irebazi. Orregaitik ez itundu mutillak. Lenengoko yokaldiya galdu arren ez dago ardura, aurrerantzean irebazi ezketiño.

✤ ✤ ✤

Tala'ko bidea geruago ta txarrago doa. Iñor ez dot ikusten bera atonduten. Len esaten ebien molle andi bat egingo dala atxetatik asita. ¡¡Ez dakit noiz!

Aldats bera lurrak larri ta larri doaz. Iñori yaramonik egin barik.

MOTXELA.

UBIDE

MISTELATXO'TIK "KUKU"

Da ikusi genduzen lagun asko antxiñeko lagun on asko geu lez, Paskue jajek jajoterrijen igaroten: Ibargutxi'tar Julen, Eibartik, Ibargutxi'ta: Gabiar, Zaubearana (Araba'tik; Nankiares'dar Elene Lujutik, Armendariz'tar Baurli, Eukeni ta abar Bilbo'tik da besteik asko, eurrez jentia...

NAFAR TXIKITIK "KUKU"

Esan euskuben, aste gureneko elizkizunak beti oidanlez ospetsuak izan direla, erri guztija erdurik eurotara; auxe benetan siñestu bier, ba geure jajoterrijan, siñismen betekue da, eta Asteguren elizkizunetan, berariz erakutsi oi-eban geure txiki aldijen be.

Olan ezpada itandu Olano'tar Aton'i, "Don Andres"-ek sermoi itzeltsue ein ondorik, judegu amurratu areen zitalkeijek entzun geure, Jaunagako, eta artu eban gabije, juen zan "Monumentura" da emon eutson gabikariaz, buiue ausi eutson... an eguen yurez azkenekuei.

NAPAR NAUSITIK "KUKU"

Emen gauz Paskuetan; alai, zoruntzu; berbiztu da gogua eta kukuak leadaijo abestuten.

Paskua egune ondo igarota gero bigarrenian "Santangrazi"-ra.

Basatxonuan autxiñekua ei-da; Legutiano aldien dago eta illan 16'gn bere ospe egune garizumian jausi dauz, egun onetan egiten da jaya.

Da or goiez gazte ta zar, Ubidar aldra aundi bat, egun on bat igaroteko asmuz; jaupa entzun, agurtza errezan tanbolin otsien jantzan ein, aurresku bijirak eta gero jan da edan, baña.

PIPER TXIKITIK "KUKU"

Asi da jaupa naurija da abestuten ederto Legutianotar abeslari zintzuek.

Eta igoten dau pulpitura Don Serapiñ'ek eta sermoie ¡erderaz!

¿Nun da Euskeldun uts-utse dan erri ta jentien artien erderaz?

Ori eztau ondo, danok esan gendun. Antxiñebe guk beti ezautu doguz euskeraz sermoie eiten Santa Engrazija basatxonuen.

Da Ubidetar asko etorri ziran tamalez beteik, Deun Ingartze'ren eskerrak entzuteko gurariz juen, da ezertxo be uiertu barik etorri.

BIJOTZ-BIJOTZETIK "KUKU"

Baña gero, ardau zuri apurtxo bat edan; du gero garratz jantzan egin genuen tanbolin soñuen, ubidetar guztijok, zar ta gazte, da gero aurreskua, beti lez bijor-bijor.

Urdallok ederto bardin genduzen egualdi ederra egonik eta kitu.

Paskua jajak olantxe igaro doguz eta oin bagoiez geure abijetaruntz.

Esan doskue aurten Deun Jon jajetan, au da, San Juan erriko jai nagosijetan izango direla bestetan baño ospe eta zaratiaz gazte talde batek gertaute.

Alan ixan bedi.

TXAKOLIN.

LARRABETZU

BARRIKETALDIJA

—Kaxo, Pirmin, ¡nora zatoz orrenbeste alproja zeure lepoan artuta?

—¡Arrayo, neure etxera mutil!

—¿Otsain egon zara ala "markesa"-ren bategaz?

—Ez, Mikel, nik neure erritik iges egin eban "lengusutarra"-ren otsein egon ez egitearen, eta orain orreri bere amaitu yake euren "negozioa" eta banator neure kabira, eta zuri ¿zer igaroten yatzu ain argal eta zurbilduta egoteko, ¿gaxorik al'zagoz?

—Ez, Pirmin, gaxorik ez'nago osasun ederra daukot, baña ez'da elduten eta...

—Zzer diñozu, Mikel, ez dala elduten?

—Ez, Pirmin, ez da elduten danerako, bada gure errian ago eta txartel asko ibili dira igaro diran lau edo bost urtian eta.

—Ez' dot zinistuten Mikel zuk gaxoen bat daukazo eta eldu biardozu osalariagana.

—Baña, ¿orain bere orretan zagoz Pirmin?

—Bai, ¡arraye! eta sendo egon bere nagoan tokian.

—Ez dakixu zer igaroten dan ala geure errian. ¿Ezagunda zuk bere ez dozuna, irakurten izparringirik.

—Eta zeuk irakurten dozu ala Mikel?

—Nik bere ez'dot irakurten baña, lengo egun baten ekindautze irakurten erri onetatik lagun bik iges egin ete daben edo Andraluziera eta...

—¡Errekontra! ¿geure erritik iges lagunak Mikel ¿ori ezda izango egia.

—Bai Pirmin eta orain gaxook osatu barik ibili biar.

—¡Josus, Josus eta Andraluzieraño!

—Eta orain ¿nora sartuko zara ba Pirmin?

—"Neure kabija" ixena daukan neure etxetxura.

—Demontres! beste oker bat daukagu emon barriz bere, baña ¿ez dakixu Pirmin papel bat biardana bertara sartzeko?

—¿Zer diñozu Mikel, neure etxera sartzeko "dokumentuak" biardirala?

—Bai Pirmin eta diñue geure erritik lagun bik iges egin ete daben edo Andraluzieraño.

—Baña Mikel barriz bere biurtuko dira laster.

—Bai, biurtuko dira baña bien bitartian, ¿zelan?

—Ederto gejagozak oraintxe orduan Mikel zu gaxorik eta nik papel barik neure errian zartzeko.

ATXAZPIKUA.

AZPEITI'TIK

ERIOTZA TAMALA

Igandean illuntzeko zortzi t'erdietan Jaunaren besoetan il zan Agirre'tar Lorentzo uri ontan oso maitatuaz zan gizon ona. (G. B.) Aren illetan oso oste asko asko izan zan ta bertan ikusi genitun berak ta anaiak daukaten lantegiko langille guziak asko izanik. Aren sendiai laguntzen diogu atsekabe orretan ta zuk irakurle otoi bat egin beraren gogo alde.

PARTIDU EDER BAT

Igandean pelota-toki-txikian jokatu zuten partidu polit bat eguerdiko amabi t'erditan Campos (Jon) ta Beizama'k, Etxeberria'tar Manu, Lapeira'tar Markos ta Campos'tar Moises irukotien aurka. Bikoteak errez irabazi zuan 20 ta 11 gelditurik. Guziak asko jokatu zuten batez ere Campos'tar Jon'ek.

ANTZERKIA

Katolikuen biltokian Bazpikunde egunerako antolatu zuten antzerkia datorren iganderako laga duten bertako antzezlariak zuzendutzen ditun gizona (Prada'tar Gotzon) makal xamar arkitzen zalako.

Orregatik datorren igandean antzeztuko cituzte "Luzbel" ekiñaldi bateko antzerki tamala "Consultas ridículas" atal bateko jostirudi parreragillea ta "Joshe Ebaisto" bakar-izketa. Lenbiziko biyak erderaz ta azkena euskeraz.

Illuntzeko zortziretan asiko da ta sarbideen saneurriak lau erreal ta bi erreal izango dira.

JUN ETORRIAK

Madrid'runtz jun da Aste Donea bere sendiakin igarota Uzin'tar Perdinanda otarrazko pelotari ospatsua.

Valladolid ta Tolosara jun dira Azillona'tar Joseba Mirena sendagille ikasle gaztea ta Usabiaga'tar Lon Joseba ikasle trebea. Ondo ibilli Madrid'etik etorri da Perez Arregi'tar Iñaki jauna, auzijarraya bertan "Txalintxo" mendiaren angia azpeitiarran alde irten dun errikoxeme jatorra. Ongi etorria izan dedilla.

LASTERKETA APUSTU BAT

Jokatuko dute orrillaren (mayatza) 25-can Errezil'ko "Loidi" basetxeko "Sasi"-k ta Orcizia'ko Olaskarreta'tar Segundo'k emengo zezen-enparantzari zeñek lenago eman 100 bira (11.300 neurkin (metro) 2.000 laurleko zeñek jaso. Urrengoan emango ditugu berri batzuek.

ITURRI-TXIKI.

✤ ✤ ✤

GAXORIK

Larraza'tar Iñaki apaiz on ona dago illaren ogeita iruko illunabarrian eman zizkioten eleizazken laguntzak Jaun aundiari laguntzen oste aundia izan zan. Nola ez, Iñaki ona ain ona guzienzat izan baita. Berrogeita sei urte goi beian dira Azpeitiko bizlarien arimen kontua artu zuala ta geroztik Azpeiti'n bizi danak ondo daki zein artzai ona izan dan Larraza jauna arimak Zeru bidean eukitzen. Ea bada azpeitiar onak Larraza jaunari zordiogu ta Jaun errukitsuari eskatu deiogun gorputzeko osasuna iritxi deiola komeni bazaio, bestela berriz eriotza done baten ondoren eman deoila betiko bizitza.

PELOTA JOKU BAT

Emengo pelota toki txikian juan zan Astelen arratsaldean Txalintxok beste batekin izan zuan amabira zuten amaika batek ta Txalintxo batian zegon Txalintxo kartzen du sakeata amabikoa erabat egun zion launa laurleko zuten jokua. Bejondeikela Txalintxo, ostro beltza orain da beti iri opa diat. Agur.

URREKO ZOROA.

GETXO-NEGURI

"EUZKEREA"

Ill oneri dagokijon zenbaki au, ederto dator. Lanian diñardube, ta Sabindar idazkeriari bultzada ona emon dautse aldizkingi orrek urten dabenik ona. Zorijonak eta aurrera, abertzalian idazkeria zabaldu daigun.

"KIRIKIÑO"-REN OMENEZKO JAUPEA

"Otxolu"-ak diñoan lez, egin bear zan oingo, baña...

Ia "Gogorra" zintzuba ta beste Durango aldeko idazle bikañok zer diñozuben. Ezer egiteko gerturik bazagoze,, orain-dik aginduten dautzubet neure laguntasuna, ta bestiak be, bardin egingo dabela zetan esan lez. Ia ba nóz egiten dan jaupa ori.

Beste oingo eginta egon bear leukon gauza bat be, auxe: "Kirikiño"-k ainbat idazki eder itxi daitu, zabalduta bai EUZKADI egunaroko onetan, eta bai, beste aldizkingi batzutan be. Ba oingo, lanotatik, mamintsuenakaz, idazti bat edo beste atera bear ziran. Beste edozein laterritan orixe ixango zan lenengoz egingo tzutan, (garrantzitsuak gura bada, ba eben lana, baña emen? Beste gauza baeuzkerean alde egiten dan dana da garrantzitzua) baña ori baño garrantzi gitxiagokubak egiten aztija emon, eta orreri jaramon bez. Nik uste dot EUZKADIkuak zeozer eginta euki bear leukela onetzaz.

TORKATIKO.

OIARTZUN

Pazkuetan goiz ta arratsalde elizkizun ederrak izan dira; meza nagusian Bartolomeus'ena lau abotsetan. Txistulariak erestaldi ederra eman zuten egun ortan. Urteagaren Rapsodia (II) eta Minue bat gogoz entzun ziran.

Lekuona'tar Manuel apaiz jaun argiaren anai Erramonek seme bat izan du. Millene eta Olatzenekuak berdiñ. Zorionak.

Unzain Bentzeslau apaiz jauna gure txokoratu da. Donostiko Arbitarrak, aurreko urtean bezela "Seinn Txipi'n" daude. Ongi etorriak Mitxelena Jose Joakiñ (eperra) aspaldian errukietxean zezon aitona il da (G. B.)

ENARA.

BASAURI'TIK

ZIÑEN

Deun Fausto'ko ume "Catequesis"-koan omenez euki dogu lengo eguastenean funtziño egokizko eder bat. Bilbo'ko Koldobiken "Los Luises" Gaztedia euren eresbatz ta guzti egitalle dirala. Au zan egitaraua (programa):

Lelengo eresbatza jotaldia bigarren, Vital Aza'k idatziko ipuñe. Geltokia ta ostatue (parada y fonda) bertoko atala, Ballester Larragan ta Krespo'k Josus apaiz jauna artezkari zeuriela, polito. Irugarren Peru Errotako'n ipuñek Koldobiken arteko Salvanés'tar Roberto'k eginda. Ederto iñok ezanen asmauko baserritarra eztala, bere egitada ta zazkeriari begituta. Laugarrena euskal erriko oiturak, Sorgin-etxe Jose Koldobika, Sertutxa'tar jaunak idazia, ta Arregi irakasle jaunan arezbatzagaz, guztiz ederto. Egitarautik ganera Godoi'tar Abustine'k abestu euskun abes poli batzuk guztiz ederto. Bilbo'ko Koralkoa da seguru abeslariau ots ederra dauko, nok euki laiken onen moduko zamea. Egarri andiegaz geratu gara barriro, be ikusteko Bilbo'tar gaztedi egokiak, guztiz poz andiegaz urten gendun egon gintzazen notin guztiok egitada egokiekaz milla esker geure Josus ta Lorentzo apaiz jaun gazte gogotsuori emon dauskuelako pozgarrizko funtziño ederrau olantxe sarri sarri.

EZKONTZAK

Bizi bidia txarto dagoala esaten dogu, baña danak eztaure olan asmetan, emen beintzat ezkonduten dabil jentia parraparra. Lengo eguenian euki doguz iru edo lau ezkontza euren artean gure lagun Landa'tar Domeka Mendata'rra emeko Lorentzo apaiz jaunan arrebeagaz; baita alkate zarran alaba be Fernandez'tar Pantzezke, Bilbo'tar gazte bategaz; danari urte askotako. Zorionak.

BASOTXORI BAT.

AZKOITI

ORRI BELTZA

Goenaga'tar Prmn jauna bost urte ta erdan gaixorik egon ondoren gure artetik aldegin digu, baiña beste aldetik pozgarri da Jaunaren besoetan il dallako berak digu aintza ta beragaz itxaropena, Pirmin euskotar abertzale zintzo izandu zaigu, bera izan gendun gure lenbiziko abertzale ziñego itzia gure urrian, gogoz bere aberrian alde edo nun eta edozeiñen aurrian aitortutzen ziguna kementsu. Aren gogoa gure Jauanak berakin euki dezala G. B., gero arte adiskide maitia; eta irakurle eta lagunak otoi bere alde, bere gorpu obiratu eta eleiz jaiak ostegun goizian izandu ziran, laguntzen diogu atsekabian aren alaba senide guztieri.

GUDARI

Juan zaizkigu gure lagun abertzale Batzokiko bazkide diran Plazaola'tar Anastasi eta Larrañaga'tar Imanol, ondo bizi baña ez aztu abertzaletasunaz.

NASKALDIA

Agurtu ditugu Donosti'tik etorrita gure lagun Agirre Martin, Zarauztik margolari ospatsua lagun Mugika'tar Nikola, Bergaratik Gallastegi'tar Martin, Elgoibartik idazle azkar "Aberri" lagun maitea laguntzen dizut atsekabian zere osabaren eriotzaz artu dezunakin G. B.

ERIOTZA

Ikurtun deunak artu ondoren ludi ontako bizitza utzi eta betiko bizitzara aldegin digu Iriondo'tar Mikaela andriak laguntzen diogu atsekabian bere senide guztiari baña aparteko eran gure adiskide abertzale neskatxa lirain mutrikoar Iriondo'tar Mirentxu'ri, irakurlia otoi bat aren alde.

EGI-ALDE.

ONDARRU'TIK

AGURTU DOGUZANAK

Aste onetan Jose Egiguren bere emaztiaz:

Felipe..., Roque Larrañaga, Pantaleon Egurrola, Laureano Arriola, Jaime Arriola, Maritxu Arriola bere senarraz eta bere ama Blanquitas.

ARRANTZALIAK TXARTO DABIZ

Arrantzurik eztator da zer ikusteko ete gaoz, bai dauna azaldu aldanik aguruben itxaso ori biarra badagota.

GAXUBAAK

Ondo dagozanak eta asko poztuten gara bat neure ama eta bestie Barbara Jose eta Miel Anton Arrizabalaren ama.

Elizakuak artuta dago illa onen 24 Ebaristo Garateren emaztia.

Illa izanda aste onetan Jose Migel plazan Anaya, Gosikako basarrikua.

✤ ✤ ✤

Juan Izeta Larriro bere doya emengo muzikako diretore, edo zuzendari. Asko poztuten gara eta txalubak ori olan dalako, ikustekua baño zikusitakua obia dalako. Oar bat Izeta'ri lantzian lantzian gomutau gero eusko soñuagaz bere.

Berbizkunde egunian jo ebazan emengo eresbatzak eusko abestiak Aida eta Los Euskos. Pozik egontzian notiñak entzuten. Neure txalubat Damien Jauregi-altxori.

Oar bat edo ordenabat artu dabe, emengo txiñelak endore jaunaren aginduz ez izteko merkatua, egiten dan tokian eskarrorik eta ez sarerik. Ia ba arrantzaliak, entzun ondo guztion ona gura dau alkate jaunak.

BIAR.

MAÑARI

YUAN ETORRI

—Zeanuri'ra yuan ziran Belakortu'tar Kauldi ta Atutxa'tar Estepan.

—Soraluze'ra Ariznabarreta'tar Atanase irakaslia.

—Bilbo'ra Etxanobe'tar Sabin, Goiti'tar Ander eta Zubizarreta'tar Augustiñe ta Errosale aiztak.

—Logroño'tik etorri ziran Gonzalez'tar Elbire ta Lide aiztak.

—Santurtze'ra yuan zan Magunazelaya'tar Pele neskatillatxua.

—Genika'tik Rui-Wamba'tar Pillomen

RRENTZA

Barikuan goizeko seiretan egin zan arrentza edo errobatibia Eleiza'tik Kurutze-Santura.

ECURALDIA

Eguasten arratsaldian euri zaparrada andi indartsua yausi zan; baita euriyaz nastian txirkola be ugeri yausi zan. Igaliyentzat oso kaltegarriya izan zan.

Orain egualdi onak artuko litzakez ba, artuak ereiñ eta enparau lanak egiteko.

YAZORIKUA

Urte batzuk dira, emengo gizon biri lanian ebilzan lekura mutil gazte bat urreratu yakien ukar (limosna) eske. Gizonak, alako mutil gaztia eskian ikustian ikaratu ziran, eta errukiz itandu eutsoen.

—¿Ain gazterik eskian ibilteko geixuen bat ala zer dozu?

Eta eskekuak ben-ben erantzun eutson.

—Bai, ta ondo txarra euki be, osatzen eztana, alperreriya deritxon geixua dot eta.

Eskekuak alde egin ebanian, gizon biyak barreka gelditu zirian.

MAÑARIKO.

ARRASATE (MONDRAGON)

EUSKEL ANTZEZKI JAYA

Erri ontako Eusko Langilliak Orrillaren lenengo eguna ospatzeko Bergara'ko Eusko Batzokiko antzezlari ospatsu ta Aretxabaleta'ko ezpatadantzari trebien laguntasunakin gertatzen duten jaya.

AGERKAIA

Jorralla'ren 30'an: Illuntzian 8'etan erri ontako dultzañero jatorrak joko dute kale biribilketa eder bat, iragarten erriari antzezlari ta ezpatadantzarien etorrera.

Ondoren Aretxabaleta'ko txistulariak ezpatadantzariakin batian egingo dau kale bira.

Zortzi ta erdietan "Cimena Popular" antzoki barrian.

Lenengo

"GURUTZEPE"

atal biko antzerki ederra Lete'tar Yon Yoseba jaunarena.

Banaketa:

Kaxilde, Jauregi andrea.
Jose Anton, Juaristi J. Jauna.
Mikel, Gallastegi jauna.
Don Casto, Barrena jauna.
Ernesto, Billar jauna.
Rodrigo, Otaola jauna.
Carlos, Juaristi N. jauna.

Mendigoizale aldria erri zain ta abar.

Bigarren

"BERNAIÑO'REN LARIAK"

Atal bateko jostirudia Altzaga'tar Toribi jaunarena (guztiz parregagarria).

Banaketa:

Andre Kaxilde, Larrañaga andrea.
Pilartxo, Zabaleta andrea.
Iñaxi, Gurrutxaga andrea.
Bernaiño, Jauregi jauna.
Premiñ, Barrena jauna.
Fernando, Billar jauna.
Filemon, Juaristi J. jauna.

Irugarren

ARETXABALETKO EZPATADANTZARI TXIKIAK

Antzezkiko atal bitartietan "gramolak" joko ditu "Aldapeko", "Aoz mutil", "Aurtxo txikia" eta "Maitasun atsekabea".

Aretxaleta'tik diñoskue euren ezpatadantzari txikiñai lagunduaz oste andixa etorriko dala ta bertan ere gar aundia dago ta egun ortan "Cinema"-n batu biar degu euskaltzale ta langille guztiok. Txartelak igandian jarriko dira saltzen eta bakotxa bizkor ibilli atzera begira egon barik.

Orrilla'ren lenenguan

Goixian 7'etan dultzañeruak kale biribilketa eta ondoren jaupa eleiz nagusian eta illuntzian 7 ta erdietatik amarrak arte dultzaña udaletxeko enparanzan.

UDALA MENDI.

ZEANURI

Elexa Amak erakusten dauskune lez alaya, pozez betekoa da kistarrentzat egunau. Joalak kanpaiak otsa dagi, ondo edo altarak apaindu ta loraz dapañez, kedats edo intzentzo usein gozoagaz elexa guztien Resurrexit... Aleluya entzunez.

Amarretako mezako gertau ziran Udalgizonak. Txistulari txiki begikoak txapel gorri da praka zionaz ikusten. Zeya'ko ume guztiak batu ziran pozik ezpatadantzari nagosiak aurretik da txistulariak alkate soñu eresia yoten nebela goiko Andra Mari'ko elexaratu ziran. Meza aurreko eleiz inguruan Iñaki Deun ereserkia yo eben.

Txaunburu jaunak emon eban jaupa bestoko jaupariak lagundurik Te Deum Laudamus abesturik Aldekoa'tar Jon jaupari jauna artezkari zala. Txonitza andikiro egin eban Uriarte'tar Luken M. B. semiak.

Arratsaldeak bezperak erri guztiek abestuta da ganetiko abestiatzaz irakurri "Garai-axe"-k bidalduko idaztia da barikuan Orixe'k argitaldu ebana.

JOLASA ERROMERIA

Emen Urraburu'n zeyan jolas garbie egin zan eusko erromerie. Ezpatadantzariak euron dantza begikoak egin ebezan. Aurreskuek be ugari ta abar, onan yarraituko balitzako txaloak yoko gauzki[illegible]. Da gauza on, ona egingo leukie bai siñesmen edo kristiñautasunian da aberri onen seme zintzoak, euskaldu onak izan[illegible]. Baña... eztakit bear dan zentzundu gabe[illegible]ko gaztedia ete dagoan.

ERIOTZA

Ogarago'tin ilda Justa (G. B.) 60 enbat andrea. Laguntzen dautsegu atsekabean senditari otoi arimeen alde.

NASKALDIJA

Iruña'ra yoan da Uriarte'tar Luken M. B. semea emen txonitzak egin ondoren baita Sagarna ikaslea be.

Barcelona ta Sevilla'ra egunotan urtengo dau Intxaurbe'tar Iñaki erri oneta jaupariak.

Bilbo'tik etorri ta emen izan dira Azkue ta Astorki jaunak.

Gazteiz da Burgo'era Angoitia da Arana ikasleak.

BIDEZKUNDE LOURDES'ERA

Illa onen azkenera'ko emon bear dau ixena emengo txaunburu jaun edo abade bateri bidezkunde onetan yoan gure dabenak.

ARRENTZA (ERROBATIBIA)

Gaur goxean egin da urtero lez goiko elexan letañek abestuez eleiz ingurua egun da Pidade'tik. Da ondoren meza nagosia Angelis erriak abestuta.

Oitura guztiz ona da berau Goiko Jaunari urteko igaliak ugariak da ekatx da enpaduetatik aske ipini gadizan, da bai arerio guztietatik aldenduteko laguntasuna eskatzeko. Baña etxe bakotxetik gitxienez bat etorri biar litzake ez, sarri yazoten dan lez, dana emon bear dauskun jauna'ri ordutxo bat geure zeregin apurrakatik urrinetatik etorri bearren izan arren itxi.

UMIEN LENENGO JAUN-ARTZEA

Gertetan dabiz emen umiak lenengo jaun artzeko. Datorren igandean izango dabe lenengo jaunartzea.

ETXE BARRIE

Laster asteko dau Azteri'ko auzunian Gortazar Vicente'k ointsu erre yakona maiztar edo errentadoreari.

Baita Gotxikoan Ipiñaburun bizitza bikoa, egingo dala diñaude. Ori ondo legoke erriko biztanleak gitxituez ezteitezala yoan. Urteokaz azi ezta egin erri au te.

GAZTAE BARRIE

Aste onetan ekarri dabe artzañak lenengoz aurten. 90 erlean saldurik arroya Bilbo'ra.

EGURALDIA

Epeldu egindau, da Gorbei'ko edurrek be, urtu dira ie. Baña eurie ugari zizek urteiteko aro ona. Bruno, Ipiñaburu'ko ei dabil egunero bille. Oingo Kortak sendo bete euko dituz etxean.

PELOTA LEKUAN

Eguraldi onak egiten badituz orain ipiñi leikez partiduek ugara. Egune be luze dago ta.

BASERRITAR BAT.

ELGOIBAR

IZPAR BELTZAK

Yauna'ren besoetan ill dira 76 urte ittuztela Egia'tar Jone "Ua-Txiki'ko" beserrikua eta Agirrekomoskorta'tar Josebe, "Belaustegi" basarrikua. Goian begoz.

Beren obiraltze eta ill otoizketetan oste aundia batu zan, biak Deun ballerakuak ziran.

EZKON IZPARRAK

Datorren illan lenengoan ezkonduko dira Iriondo'tar Frutuoso, Igartua'tar Karmele neskatilla politarekin eta 6'an Mugertza'tar Blas, Gorostitza'tar Benedite'rekin.

Zorion artu aurrez.

OSTEGUN DEUNA

Egunak dagokion bezela txanagusian eleizkizun ederrak egin ziran. Goizian goizik notin asko bildu zan Jaunatzen.

Amarretan jaupa nagusia, abesturik "Haller-ena", bienbitartian Gure Jaunartu zuten eleiz apaizak ucal gizonak, eta ostontzeko askok, abesturik "O Sacrum Convivium" eta "Panis Angelicus" lendabizikua "Gregorianua" bigarrena Aita Otaño'rena. Ondoren egin zan eleiz barruban ibildeuna Gure Jauna espetxeratzia ostontzeko eleizkizun geiago ere bai. Gurtzaldurik alkartasun edo kofradi'ko askok.

Arratsaldian iruretan Gurutz Bidia, eta irakasle apostolueri oñak garbitzia ondoren Mandato deitzen dioten oso ederki eginda Aita Zaloña pantzeskatarrak. Gero ibildeuna euriagaitik eleizpian abesturik "Miserere" Palestrinarena lau abotsetan, "O Cruz ave" Vittoria'rena lau abotsetan.

Gaubian zortziretan Gurutz-bidia abesturik ondoren "Miserere" eder bat oso ederki gero Jaun zaitzen gelditurik Gaugurtzalliak eta beste asko egiñik txadon nagusian, eta Deuna Kalare eleizan.

OSTIRAL DEUNA

Amarretan jaupa legorra. Arratsaldian abestu zan "O Cruz" ondoren "Ama Nekatsuba"-ren itzaldia Zaloña aitak. Gexo kalez-kale obiratze entiarua Jauna'rena "Stabat Mater" abesturik eresbatzak jozuan "Cortejo Funebre" eretzia "Parrarena". Eleizan sartu eta abestu ziran "Quies ets homo" eta "Il da Jesus" euskeraz. Gaubian abestu zuten "Miserere" Baldes'ena "O vos omnes" Koikoetxea'rena bien bitartian gure Josu obian sartzia.

BERBIZKUNDE EGUNA

Egun alaitsua Jauna'ren sinismena daukatet guztientzat. Goizian goiz notin asko batu zan paskuakua egiten. Amarreta jaupa nagusi ederra abestu zuten oso ederki "Bigarren Pontificala" Perosi'rena eta Glorian oitura dan bezela Jauna'ren Berbizkundia egiten da, itzaldia lengo egunetako aita pantzeskatarrak egin zuan. Ondoren ibildeuna Jaun berpiztuak eta Ama Neskutzak bidian topo egiten dute biar agurturik besarkaturik eresbatzak jo zuan "Bendita tu eres" eresi. Eleizkizun onetara oste asko batu zan Udala ere bai.

Astelenian gaixueri Jaun ematia egin zan lagundurik oste askok eresbatzak eta Udalak